

Pista jolasa.

Ikasleak 8 pertsonaz osaturiko taldeetan banatu behar dira jolas hau egiteko eta talde kopurua partide kopuruaren arabera izango da. Adinaren arabera talde bakoitzarekin irakasle bat joan beharko da.

Jolasa talde guztiek Torrontero enparantzan hasiko dute, eta talde guztiek toki beretik igaro behar badute ere, ordena desberdinean egingo dute ibilbidea. Hauek dira igaro beharreko tokiak eta eman beharreko pistak:

TOKIA: **Torrontero enparantza**

PISTA: Gaixorik zaude eta medikuak sukarra kentzeko botika hartzeko esan dizu. Etxera joan eta botika hori ez daukazula konturatu zara. Non lortu dezakezu?

NORA JOAN: Botika

TOKIA: **Botika**

PISTA: Lortu duzu botika, baita hartu ere eta ez duzu sukarrik! Hala ere, medikuarenera joan beharko duzu guztiz sendatu zaren ikusteko.

NORA JOAN: Anbulategia

TOKIA: **Anbulategia**

PISTA: Bai! Erabat sendatu zara eta medikuak lagunekin jolasean ibiltzeko baimena eman dizu. Pelotan jolastea erabaki duzue denon artean eta beraz, animalia izena duen pelotalekuaren bila hasi zaitezte!

NORA JOAN: Artza Udal Pelotalekua

TOKIA: **Artza Udal pelotalekua**

PISTA: Nekatuta zaudete pelotan horrenbeste denboran ibilita. Zergatik ez zoazte lasai-lasai eseri eta libururen bat irakurtzera? Gainera ez zarete gehiegi ibili behar.

NORA JOAN: Udal Liburutegia

TOKIA: **Udal Liburutegia**

PISTA: Nahikoa lasaitu zarete eta jaietan murgiltzeko gogoz? Noiz izaten dira Bermeoko jaiak? Eta zein izen dute? Jaiak izenak badu zerikusia eliza baten izenarekin. Zoazte beratara!

NORA JOAN: Andra Mari eliza

TOKIA: **Andra Mari eliza**

PISTA: Oraingo honetan XIV.mendera egingo dugu jauzi. Garai hartan harresi bai egin zuten uriaren inguruan. Baina urira sartu nahi zuenak nondik igaro behar izaten zuen? Gaur egun sarrera horietako bat baino ez da geratzen. Zoazte bertara hau ere desagertu baino lehen!

NORA JOAN: San Juan Portale

TOKIA: **San Juan Portale**

PISTA: Garaiz iritsi zarete! Oraindik ez naute bota! Baina berandu da eta matematikako ariketak egitera joateko ordua iritsi da. Beraz, zoazte irakasle eta ikasleak batzen zareten tokira eta hasi lanean!

NORA JOAN: Talde bakoitzaren ikastetxea